

EUSKARA IKASTEKO MATRIKULA GASTUAK ORDAINTZEKO ESKORIATZAK UDALAREN DIRU LAGUNTZA ARAUDIA

ARRAZOIAK AZALTZEA

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera arauzkotzekoa, bere 5. artikuluan Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar guztiek hizkuntzaren esparruan dituzten eskubide nagusiak xedatzen ditu, eta ondoren bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren atalburuetan eskubide horiek bizitza sozialaren esparru guztietara hedatzen ditu. Legeak, halaber, erakunde bakoitzak dituen eskumenen barruan herritarrenganako hizkuntza politika aintzat har dezaten agintzen die herri administrazioei, besteak beste bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatuz.

Horregatik, eta Udalaren diru laguntza emanez lortu nahi den interes publikoa eta Udalaren diru laguntza jarduerak bete behar dituzten printzipioak (hala nola publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna, diskriminazio eza, eragingarritasuna eta eraginkortasuna) betetzea bermatzeko, ordenantza hau egin da, parte hartzen duten udal organoen eta diru laguntzen onuradun izan litezkeen pertsonen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen marko juridiko orokorra jasotzeko. Eta behar den publizitatea emango zaio dokumentuari, inplikaturik dauden alde guztiek jakin dezaten horren berri.

1. artikulua: HELBURUA

Araudi honen helburua da euskara ikastaroetako matrikula ordaintzeko diru laguntza irizpideak arautzea 2015. urtean.

2. artikulua: DIRU LAGUNTZA MOTAK

Bi diru laguntza mota daude:

A) 2014-2015 ikasturtean euskaltegian ibili direnentzako:

A.1 LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN IBILITAKOAK	A.2 LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN IBILI EZ DIRENAK
<ul style="list-style-type: none">• Matrikularen kostua %60a arte: Leintz Udal Euskaltegiko matrikularen kostua gehienez %60an subentzionatuko da. Horretarako, Leintz Udal Euskaltegiak emandako laguntza zenbatekoa den kontuan hartu eta kopuru horretatik aurrera %60ra arteko kopurua emango du Eskoriatzako Udalak.• Matrikularen kostua %100: Eskatzaileak hurrengo ikasturtean Leintz Udal Euskaltegian matrikula egiten badu, bukatu berri duen ikastaroko matrikula ordaintzeko	<ul style="list-style-type: none">• Matrikularen kostua %50 arte: Matrikularen kostua %50ean subentzionatuko da, eskatzaileak baldintzak betetzen baditu.• Matrikularen kostua %100: Eskatzaileak hurrengo ikasturtean Leintz Udal Euskaltegian matrikula egiten badu, bukatu berri duen ikastaroko matrikula ordaintzeko %100eko diru laguntza emango zaio.



%100 arteko diru laguntza emango zaio.	
--	--

B) 2015-2016 ikasturtean matrikula berria egiten dutenentzako:

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none">• 2014-2015 ikasturtean euskaltegian matrikulatuta egon ez diren ikasleek, 2015-2016 ikasturtean dagokien matrikularen %50a ordainduko dute. (Leintz Udal Euskaltegiak propio onartutako matrikula sistema berezietan ere aplikatuko da beherapen hori).• Matrikularen gainontzeko %50a Eskoriatzako Udalak bere gain hartuko du eta berak ordainduko dio zuzenean onuradunaren diru laguntza euskaltegiari. |
|---|

3. artikulua: BALDINTZAK

Diru laguntza mota bakoitzerako baldintzak honako hauek izango dira:

A) 2014-2015 ikasturtean euskaltegian ibili direnek bete beharreko baldintzak:	B) 2015-2016 ikasturtean matrikula berria egiten dutenek bete beharreko baldintzak:
<ul style="list-style-type: none">• Ikastaroa Leintz Udal Euskaltegian egindakoek: udal euskaltegiak ematen dituen beka sisteman onartutako irizpideak bete beharko dituzte.• Ikastaroa Udal Euskaltegitik kanpo egindakoek, honako baldintzak bete beharko dituzte:<ul style="list-style-type: none">◦ Egindako ikastaroan asistentzia %90ekoa izatea.◦ Eskoriatzan erroldatuta egotea.	<ul style="list-style-type: none">• Eskoriatzan erroldatuta egotea.• Ikasturtea bukatu egin beharko dute.• Ikasturtean eskoletara izandako asistentzia %90ekoa izan beharko da.• Baldintza horiek bete ezean, onuradunak Udalari emandako diru laguntza bueltatu egin beharko dio.

4. artikulua: BALDINTZAK eta BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

“2015-2016 ikasturtean matrikula berria” egiten dutenek Araudi honetako 3. artikuluan aipatzen den asistentzia edo bestelako baldintzaren bat bete ezean, diru laguntza bueltatu beharko egin beharko diote Udalari, Udalak berak eskaera egin eta bi hilabete baino lehen.

Dirua bueltatu ezean, onuradunak Eskoriatzako Udaletik beste edozein motako diru laguntza jasotzeko eskubidea galduko du 5 urtez. Eta automatikoki diruz lagundutako eskoletara joateko eskubidea galduko du.

5. artikulua: ONURADUNAK

Diru laguntza hauek Eskoriatzan erroldatuta dauden pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dituzte. Izaera publikoa duten entitateei, berriz, ez zaie diru laguntzarik emango.



Diru laguntza honen helburua kontuan izanik eta 38/2003 Legeak, Diru Laguntzak ematea arautzen duenak, 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte diru laguntza emango duen erakundean zinegotzi edo plantilako langile direnek.

Gainera, Eskoriatzako kirol edo aisialdi elkartean diharduten pertsonak, euren egitekoa erabakigarria denean ere eskuratu ahal izango dituzten diru laguntza hauek.

Onuradunak, behin bakarrik jaso ahal izango du udal euskaltegian matrikula berria egiten dutenei emandako laguntza, gainontzeko ikasturteetan euskaltegian ibili direnentzako diru laguntza modua jaso ahal izango baitu.

6. artikulua: DIRU IZENDAPENA

Eskoriatzako Udalak 2015. urterako 0402.481.355.00.01 partidatik 2.500 euroko erreserba egiten du araudi honetan jasotzen diren diru laguntzak bideratzeko.

Deialdi honetan finkatutako oinarrien arabera emango den diru laguntza kopuru totala ez da inoiz goian adierazitakoa baino handiagoa izango, beti ere indarrean dagoen legislazioak aurreikusten dituen kreditu aldaketa eta kreditu binkulazioak egin ahal izango direlarik.

7. artikulua: ORGANO ESKUDUNAK

Instruktorea euskara azpibatzerdearen zinegotzi arduraduna izango da. Instruktoarak, teknikariaren txostena jasotakoan eta Kultura batzorde informatzailearen iritzia entzun ondoren, diru laguntza proposamena egingo dio alkateari, hark dagokion erabakia har dezan.

8. artikulua: ESKAERA AURKEZTEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko bi epe egongo dira.

- 2014-2015 ikasturteko laguntzak eskatzeko eskaera aurkezteko azkeneko eguna **2015eko uztailaren 15a** izango da.
- 2015-2016 ikasturtean euskaltegian matrikula berria egiten dutenek eskaera aurkezteko azkeneko eguna **2015eko irailaren 30a** izango da.



9. artikulua: AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

2014-2015 ikasturtean euskaltegian IBILITAKOEK	2014-2016 ikasturtean matrikula BERRIA egindakoek
<ul style="list-style-type: none">• Leintz Udal Euskaltegian ibilitakoek:<ul style="list-style-type: none">• Eskaera orria.• Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak indarrean dituela egiaztatze baimena (borondatezkoa) • Leintz Udal Euskaltegitik kanpo ibilitakoek:<ul style="list-style-type: none">• Eskaera orria• Matrikula ordaindu izanaren agiria.• Ikastarora izandako asistentzia egiaztatze euskaltegiak edo barnetegiak egindako agiria.• Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak indarrean dituela egiaztatze baimena (borondatezkoa).	<ul style="list-style-type: none">• Eskaera orria.• Baldintzak bete ezean jasotako diru laguntza bueltatzeko konpromisoa sinatuta.• Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak indarrean dituela egiaztatze baimena (borondatezkoa).

10. artikulua: BETEBEHARRAK

Diru laguntza izendapena egiteko nahiz ordainketa agintzeko, 3. artikuluko baldintzak betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dira:

- Diru laguntza jasoko duen ekintza 2014ko iraila eta 2015eko uztaila bitartean egindakoa izatea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako diru laguntzak jasotzeko debeku-kausen pean ez egotea.
- Egunean egotea betebeharrak fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan.
- Eskoriatzako Udalarekin edo haren menpeko erakunde autonomoekin edozein motatako zorrak eta zigorrak kitatuta izatea.

11. artikulua: ORDAINKETA

Diru laguntza ordainketa bakarrean emango da, gastua egin dela eta betebeharrak bete direla egiaztatutakoan eta dagokion organoak erabakia hartutakoan.



Diru laguntza deialdi honi atxikitutako eskaera guztiak ez dago zertan epe berdinean ordaindu. Laguntzari buruzko erabaki hartzaileak, ordainketak beharren arabera egitea ahalbideratu ahal izango du.

12. artikulua: EBAZPEN EPEA ETA JAKINARAZPENA

Eskariak aurkezteko epea bukatutakoan, euskara azpibatzaileak eskaera guztiak aztertu eta diru laguntza banaketaren proposamena egingo dio kultura batzorde informatzaileari. Ondoren, 7. artikuluan zehaztutako organo eskudunei dagokie eskariak onartzea edo baztertzea eta baita diru laguntzak izendatzea ere.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienez ere 3 hilabeteko epean hartuko da hari buruzko erabakia. Epe horretan interesdunek jakinarazpenik jaso ezean, eskaria ez dela onartu ulertu beharko da.

13. artikulua: INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortuz gero, kultura batzorde informatzaileak haiei buruzko txostena egin eta Alkateari erabakia hartzeko proposamena egingo dio. Alkatea izango da erabakia hartzeko eskuduna.



NORMATIVA DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA PARA SUBVENCIONAR LOS GASTOS DE MATRICULACIÓN DE CURSOS DE EUSKERA

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera establece en su artículo 5 los derechos fundamentales de que gozan todos los ciudadanos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia lingüística, y, a continuación, en los capítulos segundo, tercero, cuarto y quinto hace extensivos dichos derechos a todos los ámbitos de la vida social. La ley, asimismo, dispone la obligación de todas las administraciones públicas a respetar, dentro de las competencias de cada institución, la política lingüística hacia los ciudadanos y promover el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, entre otras cosas.

Por dicho motivo, y con el objetivo de garantizar el cumplimiento del interés público perseguido con la concesión de la subvención y de los principios que deben inspirar la actividad subvencional del Ayuntamiento, como son la publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad, no discriminación, eficacia y eficiencia, el pleno municipal formula la presente ordenanza que trata de recoger el marco jurídico general regulador de la actuación de los distintos órganos municipales intervinientes y de los derechos y obligaciones de los beneficiarios de las subvenciones, dándole a dicho documento la publicidad necesaria que permita su conocimiento por todas las partes implicadas.

Artículo 1: OBJETIVO.

Es objeto de esta normativa regular los criterios de las subvenciones para sufragar la matrícula de los cursos de euskera en el año 2015.

Artículo 2: TIPO DE SUBVENCIONES

Se distinguen dos tipos de subvenciones:

A) Ayudas para matrículas del euskaltegi, de cursos realizados en el periodo 2014-2015:

A.1 CURSOS REALIZADOS EN LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA	A.2 CURSOS REALIZADOS FUERA DE LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
<ul style="list-style-type: none">• Hasta el 60% del coste de la matrícula: El coste de la matrícula en Leintz Udal Euskaltegia se subvencionará como máximo con un 60%. Para ello, se tendrá en cuenta el importe de la ayuda concedida por Leintz Udal Euskaltegia, y el Ayuntamiento de Eskoriatza concederá el importe restante hasta alcanzar el 60%.• El 100% del coste de la matrícula: Si el solicitante formaliza la matrícula del siguiente curso en Leintz Udal Euskaltegia, se le concederá una subvención de hasta el 100% para	<ul style="list-style-type: none">• Hasta el 50% del coste de la matrícula: se subvencionará el 50% de la matrícula si el solicitante cumple los requisitos.• El 100% del coste de la matrícula: Si el solicitante formaliza la matrícula del curso siguiente en Leintz Udal Euskaltegia, se le concederá una subvención de hasta el 100% para abonar la matrícula del curso recién finalizado.



abonar la matrícula del curso recién finalizado.	
--	--

B) Ayudas para el curso 2015-2016, en nuevas matrículas:

- | |
|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Podrán solicitar esta ayuda las personas que no hayan estado matriculadas en el euskaltegi durante el curso 2014-2015. En este caso abonarán el 50% de la matrícula que les corresponda (la reducción de la matrícula también será aplicable en los casos de matriculación especial).• El 50% restante será asumido por el Ayuntamiento de Eskoriatza, que abonara tal cantidad directamente el euskaltegi. |
|--|

Artículo 3: REQUISITOS

Para poder recibir la subvención se deberán de cumplir los siguientes requisitos:

A) Los matriculados en el curso 2014-2015:	B) Nuevas matrículas para el curso 2015-2016:
<ul style="list-style-type: none">• Los que hayan realizado el curso en Leintz Udal Euskaltea deberán cumplir los criterios aprobados en el sistema de becas del euskaltegi municipal.• Los que hayan realizado el curso fuera del euskaltegi municipal deberán cumplir los siguientes requisitos:<ul style="list-style-type: none">◦ La asistencia al curso deberá de haber sido superior al 90%.◦ Estar empadronado en Eskoriatza.	<ul style="list-style-type: none">• Estar empadronado en Eskoriatza.• Finalizar en su totalidad el curso iniciado.• La asistencia al curso deberá de haber sido superior al 90%.• De no cumplir esos requisitos, reintegrar al Ayuntamiento la cantidad recibida como subvención.

Artículo 4: INCUMPLIMIENTO DE REQUISITOS Y OBLIGACIONES

Los beneficiarios de la subvención concedida a nuevas matrículas para el curso 2015-2016, deberán cumplir los requisitos establecidos en el art. 3 de las presentes bases. De no cumplir dichos requisitos, deberán reintegrar al Ayuntamiento la cantidad de la que han sido beneficiarios. Para ello dispondrá de un plazo de 2 meses a partir de recibir tal requerimiento por parte del Ayuntamiento.

En caso de no reintegrar dicha cantidad, el beneficiario perderá el derecho a recibir cualquier otro tipo de subvención por parte del Ayuntamiento, en el periodo de 5 años. Además, perderá automáticamente el derecho a acudir a las clases subvencionadas.

Artículo 5: BENEFICIARIOS



Podrán acceder a estas subvenciones las personas físicas empadronadas en Eskoriatza. No se concederán subvenciones a las entidades de carácter público.

Atendiendo la naturaleza de la subvención, y al amparo de la previsión contemplada en el art. 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, podrán obtener la condición de beneficiarios de la subvenciones reguladas en las presentes bases, los corporativos y personal de plantilla del organismo convocante.

Además, la personas que participen activamente en asociaciones de deporte y tiempo libre de Eskoriatzan, también podrán ser beneficiarios de la subvención, siempre que su labor sea significativa en dicho ámbito.

Los beneficiarios solamente podrán recibir una única vez la subvención por “Nueva matrícula en el euskaltegi”, ya que el resto de cursos podrán obtener, en caso de cumplir los requisitos, la subvención correspondiente al año en curso.

Artículo 6: ASIGNACIÓN ECONÓMICA

Para tramitar las subvenciones recogidas en esta normativa, el Ayuntamiento de Eskoriatza realiza el año 2015 una reserva de 2.500 euros de la partida 0402.481.355.10.01 del presupuesto vigente.

El total de las subvenciones que se concederán según las bases fijadas en esta convocatoria no podrá superar en ningún caso la cantidad arriba mencionada; en cualquier caso, se podrán realizar las modificaciones de crédito y vinculaciones de crédito previstas en la legislación vigente.

Artículo 7: ÓRGANO COMPETENTE

El instructor será el concejal responsable de la subcomisión de euskera. El instructor, una vez recibido el informa del técnico y haber escuchado la opinión de la comisión informativa de Cultura, realizará la propuesta de subvención al Alcalde para que este tome la resolución correspondiente.

Artículo 8: PLAZOS PARA PRESENTAR LA SOLICITUD.

Las solicitudes se presentarán en estos plazos:

- Último día para presentar las solicitudes de subvención para matrículas realizadas en el curso 2014-2015: **15 de julio de 2015.**
- Último día para presentar las solicitudes de subvención para matrículas del curso 2015-2016: **30 de septiembre de 2015.**

Artículo 9: DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Los matriculado en el curso 2014-2015	Los matriculados en el curso 2015-2016
<ul style="list-style-type: none">• Cursos realizados en Leintz Udal Euskaltegia:<ul style="list-style-type: none">• Hoja de solicitud.• Autorización para obtención de datos sobre estar al	<ul style="list-style-type: none">• Hoja de solicitud.• Compromiso firmado para la devolución de la subvención en caso de incumplimiento de las condiciones.• Autorización para obtención de datos



<p>corriente de pagos y cumplir con la seguridad social (voluntario).</p> <ul style="list-style-type: none">• Cursos realizados en otros euskaltegis:<ul style="list-style-type: none">• Hoja de solicitud.• Documento acreditativo de haber abonado la matrícula.• Documento expedido por el euskaltegi o el barnetegi para certificar la asistencia al curso.• Autorización para obtención de datos sobre estar al corriente de pagos y cumplir con la seguridad social (voluntario).	<p>sobre estar al corriente de pagos y cumplir con la seguridad social (voluntario).</p>
---	--

Artículo 10: OBLIGACIONES

Para asignar las ayudas y ordenar el pago, además de los requisitos específicos establecidos en el artículo 3, se deberán de cumplir también estos otros:

- Que la actividad subvencionable se haya realizado entre septiembre de 2013 y julio del 2014.
- No haber incurrido en ninguna de las causas de prohibición para percibir las ayudas que se contemplan en los párrafos 2 y 3 del artículo nº 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.
- Hallarse al corriente de los pagos tributarios y de la Seguridad Social.
- Tener liquidadas todas las deudas y sanciones de cualquier naturaleza con el Ayuntamiento de Eskoriatza y con los organismos autónomos dependientes de él.

Artículo 11: PAGO

El abono de la subvención se realizará en un único pago, una vez se haya certificado la realización del gasto y el cumplimiento de las obligaciones, y así lo ordene el órgano correspondiente.

No será necesario realizar todos los pagos de las subvenciones solicitadas en un único pago. Para el órgano competente podrá ordenar el pago en base a las necesidades específicas de cada solicitud.

Artículo 12: PLAZO DE RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la subcomisión de euskera las analizará y elevará la propuesta de adjudicación de las subvenciones a la comisión informativa de Cultura. Posteriormente, corresponde a los órganos competentes especificados en el artículo 6 admitir o desestimar las solicitudes y asignar las ayudas.



El plazo máximo de resolución será de tres meses a contar desde el fin del plazo de presentación de solicitudes. En el supuesto de que el interesado no reciba notificación en dicho plazo, se entenderá que la solicitud queda desestimada.

Artículo 12: INTERPRETACIÓN

Si surgiera cualquier duda a la hora de interpretar estas bases, la comisión informativa de cultura realizará un informe sobre las mismas y efectuará una propuesta de resolución al alcalde. La competencia para resolver las dudas recae en el alcalde.